

2021ean, MUTUALIAk 412.686 pertsonari eman zien estaldura Euskadin

- **Mutualiak Euskadiko langileen % 45 inguru babesten ditu.**
- **2021. urtean, 300.000 osasun asistentzia baino gehiago egin zituen, eta 277.033 prestazio ekonomiko kudeatu.**
- **Mutualian osasun asistentzia jaso duten pertsonen % 94,32 gogobeterik edo oso gogobeterik agertzen dira.**

Donostia-San Sebastián, 2022ko uztailaren 15a

Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutuak, Ohiko Batzar Orokorra egin du, eta 2021eko ekitaldiko jardura eta ekonomia balantzea onetsi ditu. 9,7 milioi euroko emaitza izan du; 367,58 milioiko diru-sarrerak, eta 328 milioiko guztizko gastuak prestazioetan. 2021eko ekitaldian, azpimarratzekoa izan da kontingentzia profesionalen ondoriozko prestazioak nabarmen hazi direla; hori zuzenean dago lotuta pandemiaren ondoren jardura ekonomikoa berriz ere berreskuratzearekin.

Ezohiko Batzar Orokorrean –lehenago egin da–, Urtsa Errazti Mutualiaren presidentea bere hitzartzean azpimarratu du “zer garrantzi duen korporazioaren helburua erakundearen Estatutuetan jasotzeak, beti izan dezagun erreferentzia gisa”. Eta aukera baliatu zuen ohartarazpena bertan zeuden guztiei gogorarazteko: “pertsonen osasuna, segurtasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan”. Bestalde, Ignacio Lekunberri Mutualiaren zuzendari kudeatzaileak nabarmendu zuenez, “Mutualiak gizartearen duen eragina neurtu behar du, hori kudeatzeko, positiboa areagotuz eta negatiboa minimizatuz edo konpentsatuz”. Ildo horretan, adierazi zuen Mutualiak 1,21 € ematen dizkiola euskal gizarteari jasotzen duen euro bakoitzeko”, kontabilitate sozialeko ereduaren arabera.

Beste urte batez, Batzar Orokorrak –Mutualiaren Pakea klinikako ekitaldi aretoan egin da– ingurumen-neurriak jaso ditu bere diseinu eta antolaketan, Erronka Garbia metodologiari jarraikiz; hain zuzen ere, prozedura horrek ingurumenaren



prentsa-oharra / nota de prensa

gaineko inpaktu negatiboak minimizatzea ahalbidetzen du, ekitaldiak egiteari dagokionez.